

**“LAN GAUA” IBILALDIA 2018**

**BIDASOAKO KONTRABANDISTAK**

**BEINTZA-LABAIEN / SALDIAS**

**MARTXOAK 10**

**Beintza – Labaien – Pagoeta – Saldias – Aieleta – Labaien - Beintza**

**DISTANTZIA: 10,950 km**

**/ DENBORA: 3h. 30´**

**/ DESNIBELA: 400 mt.**

**Ongi etorri LAN GAUA VI. ediziora!!** Helburu xumea dugu: kontrabandoan aritutako pertsona batengatik testigantza zuzena hartu, bere lanaren hainbat pasadizo ezagutuz. Aurtengoan Saldiasko PERIKO URRUTIA “Koxkorro”ren testigantza jasoko dugu, bere etxe atarian. Perikok 89 urte ditu eta hainbat urtez bere herriko alkatea izan da.



Periko “Koxkorro”, bizi den Argiñenea etxe atarian. Etxalarko Xanti Elizagoien kontrabandista ohia ere (ezk.).

### **AHOLKUAK – KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK**

- **Materiala:** mendiko arropaz gain, gauetz ibiltzeko argia (burukoa, hobe). Mendiko botak beharrezkoak dira. ERNE LOKATZA TARTE IRRISTAKORRA: Saldiasetik Lopereneko Bordara 1,5km tartean lokatza-logia eta ur ugari aurkituko dugu.
- **Ixiltasuna:** taldean ibili arren, ixilik ibili behar dugu, kontrabandoaren giroa eta sensazioak hobeto ulertzeko.
- **Erritmoa:** erritmo onean ibiliko gara, ez korrika (11 km, 3 orduz). Erne ibili bidexka eta tarte irristakorretan.
- **Elkarrekin:** taldean eta elkarrekin ibiliko gara, gure seguritatea hobeto bermatu ahal izateko.
- **Laguntza kotxea:** Aieletako lepoan (7,630 kman) kotxe bat izanen da, norbaitek laguntza edo behar badu.
- **Pasadizoen azalpenak:** Perikoren azalpenak oso puntualak eta euskaraz izanen dira, bere etxe atarian. Horregatik, texto lagungarri hau prestatu dugu.

## **IBILBIDEA, PAUSUZ PAUSU.**

**0,000 km (0h.) BEINTZA (450 mt)**, frontoia ostatua-aterpetxea. Errepidetik Labaienera joan (0,750 km) eta handik Saldiasko bide zaharretik igotzen da, harrizko paretek mugatzen dituzten larre eta ardiribordatan barna.

**Periko, eskualdean ezaguna eta eskarmentu handikoa.** Periko "Koxkorro" oso ezaguna da Baztan-Bidasoan: arropa saltzaile eta ardirarru tratantea, herriz herri eta baserriz baserri ibilia da. Lehenbiziko kontaktuan "mugarekin" oso gazte izan zuen: Frantzia aldean lan egiteko asmoz Beartzundik (Elizondo) Aldudera 8 laguneko koadrila batekin pasatu zen, horietatik 4 (bera barne, Labaiengo bertze lagun batekin) paperik gabe. Alduden gendarmek "alto!!" eman eta kalabozoan sartu zituzten; Perikok eta lagunek dirua eskeini libre gelditzeko eta gendarmek ezetz. Azkenean suerte izan zuten, polizia espainolari entregatu gabe libre utzi zituzten eta.

**2,800 km (0h.) PAGOETAKO LEPOA (650 mt)**, zabal eta belartsua, garai batean Basaburua Txikia edo Barreneko herrietako alkateak (Eratsun, Ezkurra, Saldias eta Beintza-Labaien) elkartzen ziren lekua. Gora mendira igotzen den pistatik jeitsiko gara...

**BIDEA:** Lan Gaua ibilbide hau Periko "Koxkorro" k mandoz egiten zuenaren zati bat bertzerik ez da, Aieletatik Saldiaserako 4 km; Perikok Aieletan (Zubietako muga) paketeak hartu, Saldias gaineratik pasa eta Igoako mugan uzten zituen, Isastiko lepoan, ia 20km joan-etorrian. Neguko gau luzeetan bi aldiz egiten zuen!! Ibilbide honetako bertze tarreak ibiliak izan diren arren (Labaiendik Saldiasera eta Aieletara) ez da lortu testigantza ematen duenik.



Aieletatik Igoako mugarako kontrabandoan mandoekin ibilbitzen ziren, karga handiagoa eramanez.

**3,875 km (0h.) SALDIAS (550 mt)**, herriko plaza eta ostatua. Ondean, Zurginenea Etxea, bertan Periko Urrutia bizi da eta kontrabandoari buruzko bere testigantza laburra jasoko dugu.

**Adinean hasia.** Bertze kasuetan ez bezala, adinean sartuta hasi zen Periko kontrabandoan, 55 urterekin. Arantzako Biurritarrek (Birrurarena anaiak) Saldiasen barna paketeak pasatzeko eskatu zioten, garai hartan beraiek ibiltzen zuten Goizuetako bidea Guardia Zibilek oso kontrolatua zuten eta pakete batzuk galdu omen zituzten. Ez zuen urte asko egin: hasi eta urte batera Guardia Zibilek erran omen zioten "tendrá usted que cambiar de camino, porque si no...". Kontrabandoa uztea erabaki zuen, berarekin aritzen ziren bertze bi lagunek bezala. Hala ere, denbora labur horretan dirua egin zuen, bizi den etxea konpontzeko adina.

Saldiaстик Doneztebeko errepidetik atera eta 400 mt aurrerago, ezkerreko bide zabaletik jeitsiko gara. Bidea mendi magaletik doa, errepidearen azpitik eta nahiko distantziara, eta Ezkurra errekoak bailara eta zokoak bistan dituena.



**Lopereneko borda baserria** (6,760 km, 425 mt. OHARRA: kontrabandoaren garaian baserriaren gaineko aldetik pasatzen ziren, zeharka; berriki pinadi bat atera eta bidea ez dago oraindik garbia). Hemen Lotzabiandik datorren bidea elkartzen da, eta Loperenean kontatu digutenez, aziendako kontrabandorako pasua ere bazen, tarteka inguruko bordetan izkutatzen baizuten. Bide zementatuan gora segitu.



**7,630 km (0h.) AIELETAKO LEPOA (515 mt).** Bidegurutzeta, Zubietara doan pista. Ehiza postuak eta txabola. Haritz amerrikar handiek ingurua hartu dute (**LAGUNTZA PUNTUA**). Hemendik gertu dago Azkaratea etxea, Zubietako lur eremuan, mendi bizkarrean. Bertan hartzen zituen paketeak Perikok, mandoan kargatu eta Saldiasen barna Igoako mugara abiatu. Mendi lepoa zeharkatu eta bide zabalean barna, bordaz borda, jeitsiko gara...

**Olaitzeko zubia.** Bide zabala utzi eta pareko bidexkatik segitu, gaztainondo zaharren artean. Bide tarte hau ez da berritua izan eta ederki irudikatzen du kontrabando garaietako bideak nolakoak ziren, estuagoak, babesean...

**10,200 km (0h.) LABAIEN (425 mt),** herriko sarreran Saldiasko bide zaharrarekin bat egin . Plazan barna eta berriz errepidetik...

**10,950 km (0h.) BEINTZA (450 mt),** frontoia eta ostatua-aterpetxea. Ibilaldiaren bukaera.